


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %8,0ko hazkunde-tasa izan du 2006ko otsailean

Urteko lehenengo bi hilabeteetako hazkundera %9,1ekoa izan da, 2005eko aldi beraren aldean

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko otsailaren aldean %8,0 hazi da 2006ko otsailean. Urteko lehenengo bi hilabeteetako hazkundea %9,1ekoa izan da, 2005eko aldi beraren aldean Industri produkzioaren urte arteko portaera horretan lagundu dute energiaren sektoreko jarduera berrien sustapenak eta ekipamenduko ondasunen ekarpen garrantzitsuak.

2006ko otsailean, eta 2006ko urtarrilaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %0,6 murriztu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean. Urtarrilean, alabaina, hil arteko tasa hori %1.3 hazi zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produktzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2006ko urtarrila-otsaila bitarteko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2006ko otsaileko indizearen bilakaera hazi egin da sektore guztietan, 2005eko otsailaren aldean: energia (%29,1), ekipamenduko ondasunak (%12,0), tarteko ondasunak (%2,3) eta kontsumo-ondasunak (%3,9). Azken hauetan bi atal bereiz daitezke: kontsumo-ondasun iraunkorrak, urte arteko %2,4ko hazkundea izan dutenak, eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak, %4.6ko hazkundea izan dutenak.

2006ko otsaileko hil arteko aldaketak, 2006ko urtarrilaren aldean, positiboak izan dira hurrengo sektoreetan: energia (%1,2) eta kontsumo-ondasunak (%0,9); azken hauen

artean, gainera, kontsumo-ondasun ez iraunkorrak hil artean %1,9 hazi dira baina kontsumo-ondasun iraunkorrak hil arte berean %1,1 murriztu dira. Bestalde, ekipamenduko ondasunek eta tarteko ondasunek hil artean %-2,0 eta %-0,4ko tasa negatiboak izan dituzte hurrenez hurren.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira sektore guztietan; izan ere, Araban %14,4 hazi da, Bizkaian %8,6 eta Gipuzkoan %3,9.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasei dagokienez (2006ko otsailekoak, 2006ko urtarrilaren aldean) bilakaera ezberdinak eman dira aipatu aldian: Araban %0,6 hazi da tasa hori hil artean baina Bizkaian (%0,7) eta Gipuzkoan (%1,1) tasa horrek behera egin du.

Taula: 2006ko OTSAILA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Ots06/Ots05	At/At-1 (1)	Ots06/Urt06	Urt06/Abe05
Indize orokorra: Euskal AE	8,0	9,1	-0,6	1,3
Araba	14,4	13,3	0,6	0,8
Bizkaia	8,6	9,4	-0,7	1,2
Gipuzkoa	3,9	6,4	-1,1	1,7
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	3,9	2,4	0,9	-2,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	2,4	4,8	-1,1	0,9
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,6	1,2	1,9	-4,3
Ekipo-ondasunak	12,0	14,9	-2,0	5,1
Bitarteko ondasunak	2,3	3,8	-0,4	0,9
Energia	29,1	27,5	1,2	3,9

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin erkatuta.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp